

PRENTSA OHARRA

Harresiaren dorreak birgaitzeko obrek abian jarraitzen dute

- **Harresiaren argiztapenerako 3. fasea burutu da. Bi foko berri instalatu dira fase honen baitan, bata Orduña Hiria Erakusketa Gunean eta bestea anbulategiaren aurreko espaloian.**

Urduñan, 2021eko irailaren 1ean.- Harresiko kuboen teilatuak birgaitzeko lanak abiatu ziren uztailaren erdialdean. Besteak beste, teilatuak deseraiki dira ondoren horiek birgaitzeko. Torreoia bateko teilatua dagoeneko zaharberritu da; bigarrena konpontzeko lanei, aldiz, abuztuaren 30ean ekin zaie.

Osotara, lan horiek egiteko, hilabete eta erdiko epea aurreikusita zegoen. Azken torreoia konpontzeko, 2 edo 3 aste inguruko epea kalkulatu da. Beraz, **irailaren erdialdean amaitzea da aurreikuspena.**

Bestalde, uztailaren 26tik aurrera **harresiaren argiztapenerako 3. fasea** burutu da. **Bi foko berri instalatu dira** fase honen baitan, bata Orduña Hiria Erakusketa Gunean eta bestea anbulategiaren aurreko espaloian, Adoberias kalean. Hurrengo fasea, laugarrena, datorren urtean egingo da.